

Bildu Hernani plataforma Urnietan egin nahi den inzineradoraren kontra azaldu da

■ Bestelako alternatibak badaudela dio eta "asmo haukin amaitzeko konpromezu sendoa" azaldu du ■ Bestalde, Urnietako Udalak azterketa berriz egiteko eskatu dio San Markos mankomunitateari.

SAN Markos mankomunitateak erraustegia Urnietan egiteko hartutako erabakiak ederki harrotu ditu hautsak eta oraindik luzerako gaia izango dela dirudi. Azken egunetan salaketa eta deklarazio ugari izan dira eta ez dago batere argi aurrera zein erabaki harrokotu diren. Gaur egun San Markos mankomunitatea osatzen duten herrietako hondakinak (Donostia, Errenteria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta eta Hernani) San Markos bertederora botatzen dira, baina, 2006rako beteagongo da eta itxi egingo dute bertederoa. Ordurako inzineradora eginda edo bidean egotea nahi du mankomunitateak.

Bildu Hernani: "herriaren geroa hipotekatzen ari dira" Bildu Hernani plataformak Kronikara bidalitako prentsa ohar batean dio hiru lantegi kimiko baditugula Hernanin "arrisku haundiko" moduan

sailkatuta "baina badirudi instituzio ustel eta bazterzaile hauentzat hori zigor gutxi dela eta beste mehatxu erraldoia gertu gertu dugu: Urnietan ipini nahi duten erraustegia hain zuen ere" dio plataformak. "Inposatu nahi diguten garapena gure herriaren geroa hipotekatzen ari da" nabarmendu du Bildu Hernanik eta erraustegiaren kontra egoteko arrazoi asko daudela eta Urnietako herri-tarrak arrazoi horiek zabaltzeo "lan eredugarria" egiten ari direla dio prentsa oharrean. Bildu Hernanik alternatibak badaudela dio eta konpromeza hartu du "asmo ero haukin" amaitzeko.

"Zilegitasunik ez du"

Bestalde Plataformak dio erabaki hauek hartzeko agintariekin erabiltzen dutela "herritar talde haundi bat jasaten ari den jazarpen poliziala eta politikoa" eta gaur egungo instituzioek ez dutela herria

ordezkatzen eta erabakie "zilegitasun osoa" kentzen diela.

Urnietako Udalak kontra

Urnietako Udalak joan den astean plenoan erabaki du San Markos mankomunitateari azterketa berriz egiteko eskatzea. Udalak dio Gipuzkoa guztian egin behar dela azterketa erraustegia non jarri erabakitzeko, eta ez San Markos mankomunitateko herrietan bakarrik. Bestalde, Arnasa plataformak deitura manifestazioa egin zen joan den igandean Urnietan eta 1000 lagun inguruk egin zuten erraustegiaren kontra.

Inzineradorak Urnietan behar duela dioen azterketa San Markos mankomunitateko herrietan egin da, baina, erabakitzeko dago Gipuzkoa guztirako edo mankomunitateko herrienzako izango den inzineradora.

San Markos: "erabat ukatzen dugu informazio

teknikoa ezkutatu izana"

San Markos mankomunitateak azken aldian komunikabideetan ateratako hainbat afirmazio gezurtatu egin ditu prentsa ohar batean. Bonneko eta Leverkuseneko inzineradorak ikustera joan berriak dira Urnietako zingotzi, komunikabide eta gizarte eragileekin eta Arnasa taldeko ordezkari batek informazio teknikoa ezkutatzen saiatu izana leporatu dio San Markosi. San Markosek hori gezurra dela dio eta bertan izan diren kideek nahi zuten galderak egiteko ez duela inolako oztoporik jarri nabarmenzen du. Bestalde, erraus-tegiak Urnietan behar duela dioen azterketa manipulatu izana ere leporatu diote San Markosi eta mankomunitateak erabat gezurtatu du hori. Prentsa oharrean San Markosek eskatu du "errausketa plantari buruz egin nahi diren kritikak razionalak eta egiazkoak izatea". □

'Hiesa, dagoeneko ez da ezer gertatzen?'

tertulia bihar Biterin

HIESA prebenitzea bultzatzeko tertulia antolatu du Ongintza patronatuko prebentzio zerbitzuak, *'Hiesa, dagoeneko ez da ezer gertatzen?* izenburuarekin. Harri Bel-tza taldeko Joseba Rekalde eman-go du, bihar astelehena, 14:45etan, Biteri kultur etxearen. □

JUBILATU ETXEA

Iratxera egun pasa joateko lekua bada

JUBILATU Etxeak Iratxera egun pasa antolatu du abenduaren 9rako. Jakin arazi dute oraindik badaudela lekuak libre eta joan nahi duenak Jubilatu etxearen bertan eman beharko du izena. □

■ WATERPOLOA

Hernani B-Osasuna gaur kiroldegian

WATERPOLOKO bigarren taldeak kiroldegian jokatuko du gaur eguerdiko 13:00etan Osasunaren kontra. Hernani Bk lau jokatu eta partidu bakarra irabazi du orain artean eta gaur 2garren garaipena lortu nahi dute nafarren kontra. □

■ MAHAI TENISA

Hernanik liderra hartuko du gaur etxeen

MAHAI tenisean Hernanik Santiago TM taldearen kontra jokatuko du gaur kiroldegian, 10:00-estatik aurrera. Hernaniarrek zail dute gaur irabaztea, Santiago TM-k ez baitu oraindik partidurik galdu. Lehengo asteburuan 2garren mailako taldeak jokatu zuen Leka Enearen kontra eta 4-2 galdu zuten hernaniarrek. Taldea azkena dijua partidurik irabazi gabe eta maila galtzeko arriskuarekin. □

Saxo kontzertua gaur Udaletxeko arkupetan

HERNASAX taldeak saxo kontzertua emango du gaur Udaletxeko arkueetan, eguerdiko 13:00etan hasita. Hernasax Musika Eskolatik sortutako taldea da eta gaur saxo talderako moldatutako obra klasikoak joko dituzte: Domenico Cimarrosa italiarraren Concierto obra, Heitor Villa-Lobos brasildarraren Bachiana brasileira obra, eta JS Bach alemaniarraren Concierto de Bandenburgo obra. Horrez gain, Judith Montero saxo sopranoak obraren bat joko du bakarlarri. Hernasax osatzen dute Judith Montero saxo sopranoak, Mikel Elola, Aritz Ostolaza, Edgar Carbajo eta Itsaso Pacheco saxo altuak, Bauti Cuenca eta David Muriel saxo tenorak eta Zipri Otxandorena saxo bari-tonoak. Zuzendaria Roberto Pacheco da. □



Hernasax taldea Milagrosako kontzertu batean.


XXIII ARTÍS AV AZOKA
HERNANI
ABENDUAK 7. IGANDEA
GUDARIEN ENPARANTZA

ORONA

PBLO LA

www.gabiliza.org/hernani

Hernaniko Udalak

HORTZ KLINIKA
Garmendia

Odontologia orokorra
Txirrita kalea 13 -1^a ezk.
Tel.: 943 55 34 92

SANTA BARBARA
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi15 - Exp: Arantzazu 15 ☎ 943 551139 / 943 551979
Auto eta furgoneta zaharrak, 2.eskukoez aldatzen ditugu

406 Diesel HDI 110	- Aire egokitua	12.822 €
Ford Escort Turbo Diesel		4.507 €
Berlingo Diesel	- Aire egokitua	8.816 €
Jeep Cheroque TDI	- Aire egokitua	9.818 €
Fiat 1 3 ate Diesela		2.885 €
Land Rover - Pik NP	- Aire egokitua	2.855 €
Saab Coupe 2.000	- berri berri	5.812 €
Rover 45 Turbo Diesela	- Aire egokitua	9.616 €

...eta hainbat kotxe merke

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarte. Errredakzioa, argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre, N. Legarreta eta A. Zerain. Egoitza: Larramendi 11. ☎ 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.



Iraitz Garmendia zigor kolpea botatzen eta taldekoideak badezpada aurrera.

Partidu izugarria egin gabe irabazi zion Hernanik Atletiko San Sebastiani, 32-12

■ Hernanik lider jarraitzen du jokatutako sei partiduak irabazita.

ERRAZ irabazteko partidua zuen atzo Hernanik teorian, baina, uste baino gehiago boarrokatu behar izan zuten Atletiko San Sebastianen kontra, akats gehitxo izan baitziren partiduan. Lehen denboran erdi lotan atera ziren etxeako eta behar baina motelago ibili ziren eta donostiarrek gauzak estu jarri zizkieten. Bukaeran

14-9. Bigarren denboran pixka bat hobeto jokatu zuten hernaniarrek eta azkenerako tarte haundia egitea lortu zuten, 32-12. Hernaniarren entsaioak: Aitzol Larrañagak 1, Iker Apezetxeak 2, Thierry Lamaisonek 1 eta Boli Secok 1. Iraitz Garmendiak 2 transformazio eta zigor golpe 1 sartu zituen.

Orain gogorrena

Lehen buelta bukatzeko 3 partidu falta dira eta azkeneko biak ez dira samurrik izango hernaniarentzat. Datorren laurribatean irabazi beharko partidua du Hernanik Logroñon eta gero Gernika etxean eta Durango kanpoan. Bi talde bizkaitarrak 2 eta 3garren dijoaz hernaniarren atzetik. □



Jendea erakusketa jarritako argazkiei begira.

AHTaren kontrako erakusketa atzo

ABIADURA Haundiko Trenaren kontrako erakusketa informatiboa jarri zuen atzo Plaza Berrian AHT gelditu! taldeak. Hernanin trenbidea egitean inguru nola geldituko den ikusteko argazkiak jarri zituzten eta panelak AHTaren aurka zergatik dauden azaltzeko. Taldearen hitzetan inguru eragin kaltegarria izango du, baserri ugari botako dira, kutsadura bisual haundia eragingo du, beste garraiobide publikoen kontra joango da eta hiria potentziatuko ditu herri txikien kaltetan, besteak beste. □

Hernaniko Kronikako laguntzaile izan nahi?

Urtean 30 eurogatik egunero krónika dohainik

Telefonoz hartuko dizkizugu datu guztiak:

☎ 943 330899 - 656 703814

Bonoa zeuk bete nahi baduzu, jaso leku hauetan: Conde (Urbietako), Zinkoenea, Iruretagoiena (Kale Nagusia), Kronika (Larramendi 11) eta Dobera (Larramendi 11)

Íñigo Royo Manterola

Kiromasaia Naturopatia
Reflexología Homeopatía
Auriculoterapia Iridología
Arazo neurologiko eta
bizkar hezurrekoen konpontzea
Sta. Barbara 42 - 2.esk. - 626 807 633



HITZ BITAN



Ur jolasak lehengo kurtsoan, igerilekuau.

✓ UR LUDOTEKA

Ur jolasak gaur kiroldegin. Hernaniko igerilekuau ur jolasak izango dira gaur umeentzat, goizeko 10:00etatik 11:30etara. Igerilekuau materiala egongo da eta umeek monitorekin edo gurasoekin jolas egiteko aukera izango dute.

✓ KAROBI ELKARTEA

Barrikotea abenduaren 5ean. Karobi elkartea barrikotea antolatu du datorren ostiralerako. Izen ematea irekia dago bazkide eta lagunentzako, Karobi elkartean bertan.

✓ BERTSOLARITZA

Gipuzkoako txapelketako azken finalurreko. Gaur jokatuko da Tolosako Leidor zinean Gipuzkoako bertsolari txapelketako azken finalurreko. Jexux Mari Irazurekin batean ariko dira Jon Maia, Iker Zubeldia, Iñigo Manzisidor, Jon Martin eta Iñigo Izagirre. Lehenengo gelditzen dena zuzenean pasako da finalera eta gainerakoak puntuazio sailkatuko dira.

✓ PELOTA

Gipuzkoako txapelketako bi partidu gaur. Pelota partidua dira gaur kiroldegiko frontoian, goizeko 11:00etan. Lehenengo partidua jubenil mailakoa izango da, buruz buru. Huizi hernaniarrak Anaitasuna taldeko pelotariaren kontra jokatu beharko du. Bigarren partidua afizionatu mailakoa da eta Alvarez eta San Sebastianek bergararen kontra jokatuko dute. Paleta Goman Manzisidor eta Martinez Altzan ariko dira Alztatarra taldeko bikotearen kontra, 11:45etan. Bikote hernaniarra bikain ari da eta lehengo astean Arozena eta Urkizu Gipuzkoako txapeldunei irabazi egin zieten, 30-28.

✓ ZINEA BITERIN

La pelota vasca eta La Leyenda del pirata barba negra. Bi pelikula botako dituzte gaur Biterin. 17:00etan umeentzat *La leyenda del pirata barba negra*. 19:30etan helduentzat, *La pelota vasca. La piel contra la piedra*. □

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta vertebral, naturoterapia, masajea, reflexología, auriculoterapia, ... ☎ 943 33 28 94 - 626 80 76 33

Kale animaziorako jendea behar da, gabonetako kampainarako. Mimoa, jokoak, musika, antzerkia eta abar.. Deitu: 943 55 55 19

Jubilazioa dela eta, martxan dagoen arrandegia saldu edo alokatuko genuke prezio onean. Deitu: 943 55 61 83

Lan bila nabilen neska bat naiz. Deitu: 626 91 97 12

Gela bat alokatzen da, zentroan. Oso egokia kontsulta lanetako (fisioterapia, abokatuak, psikologo, ...). Interesatuek deitu: 943 55 46 97

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
- Gauze: Atxa-Orbea Lasarte. Hipódromo 6 ☎ 943 363549

